

## MATERIALISMO HISTERIKOA

## Ihes egin



UXUE APAOLAZA LARREA

Azkenaldi luzean ezin naiz gauzez atera, eta arratsalde ere larri, eta asteburuetan ere ez, eta (jarri zaizue jada ihes egiteko gogo), mariani-toak eta bazkari azkar samarrak izaten dira nire enkontruneak. Konpainiak ondoegi aukeratu behar ditut. Ezin ditut poteoak inprobisatu, Aner Peritz eta Maialen Akizurekin egingo nukeena, kasu, mozkor, nire señora jarioaz aspertzeko. Barkatuko didate maternalismoa (barkatu), baina nik barra batean imajinatu dut hau, eta barra batean andre bati uzten zaio zenbait dibagazio maternalista, idatziz, agian, xelebregioak direnak).

Biek adierazi dute, Peritzek lehenengo, Akizuk, katean, ihes egiteko gogo (eta eten dezagun katea, bestela, suizidio nota batean agertzeko arriskua dugu). Eta lehen kolpean, bai, bai, egin ihes, ez pentsatu, pentsatu dut. Nik ere badut gogo, beti izan dut... Itxoin, itxoin... ez, aiba, pentsatzen jarrita, ez daukat ihes egiteko gogorik (parkean ez banago). Zahartu egin naiz. Eta onerako. Eta Kavafisen hiri hura aipatzeko adina dut. Adina dut esateko beti iristen garela hiri berera, hiri hori barnean daramagulako. Baina, agian, hobe da ondorio horretara iristea, beste hiriren batean. Orain ihes egin nahi ez badut, noizbait egin nuelako izango baita. Adinaren arabera hori ere; Peritz eta Akizuri bizitza birika handiagoz arnasteko gogo antzematen baitiet (bejondeizuela), nire adinetik gorakoei gaizki kudeatutako iraganak (suizidio noten sukalde). Akizuk, hala ere, ñabartzen zuen amaieran, ihes egiteko gogo hori dela, ez norabait joatekoa, alde egitekoa bakarrik. Eta ihes egin daiteke turismoa egiteko, edo bidera berriro ez itzultzeko, edo desbideratzeko guztiz. Eta horrek prezioa du. Ni oraindik zigor izugarri baten zain nago, eta jaso ditut batzuk; ez nuke jakingo, barran mozkorturik, zer gomendatu.

Desbideratuz gero, betirako izango dela zaila, eta ez beti ederra. Baina bizirik zaudela. Eta ederra denean, gainera, batzuetan, bakarka dela, hiria zu zeu zarela, zeu hiri oso bat, eraiki baduzu (eta dibortzioak eta pandemiak ez dira amildegi izango). Eta opari hori zeuk egin diozu zeure buruari. Animatzen bazarete, gogoratu hortzen arteko odola garbitzen duzuen hurrengoan. Kalkulatu hurrengo kolperako behar duzuen denbora, ea gero eta gehiago den, edo gero eta gutxiago. Eta, batez ere, eduki inguruan ni bezalako señora noizean behin folklorika, noizean behin ama, noizean behin... bat, Martiniak odola garbitu, eta bazterretan guatekeak egiteko. ●

## EZ HANKA EZ BURU

ADUR LARREA

www.adurlarrea.com

EUSKAL MITOLOGIARIKO IZAKIA:  
MARRAZKILARIA

IZAERA: IZAKI GAUTIARRA.

EZ DA ARRISKUTSUA BAINA MAIZ GOGAIKARRIA  
SUERTA DAITEKE.HABITATA: TABERNETAKO KOMUNETAN ZEIN MENDIKO  
BORDETAN AURKI DAITEZKE BERE ARRASTOAK.AKABERA: ADIMEN ARTIFIZIALEKO  
KORPORAZIO HANDIEK, MARRAZKILARIAK  
SORTUTAKO EDUKIEN BAIMENAK,  
KREDITUAK ETA EGILETZA ESKUBIDEAK  
LAPURTU ETA MONETIZATZEAN  
DESAGERTU ZEN.

ADUR

Azpiegitura  
handiak

Donostiako Udalak *El Diario Vasconi* filtratu dionez, ez dute olatu artifizialen surf parkerik eraikiko Antondegi mendian. Berriak sorpresa eta poza eragin du inguruetan eta honen aurka ari ziren eragile ekologistetan, orain arte EAJ eta PSE-EE sendo ari baitziren igerileku erraldoi honen alde lanean.

## Euskara

2023an, EAEko Justizia Auzitegi Nagusiak balio gabe utzi zuen Uliazpi Fundazioko 34 zaintzaileren lan deialdirako euskara eskakizuna. Fundazioko langile batzordeak eta Foru Aldundiak sententzia salatu zuten eta Aldundiak jarritako helegitea ez du tramitera ere onartu Auzitegi Gorenak.

## Sexualitatea

LGTBifobiaren aurkako egunean, maiatzaren 17an, mobilizazio ugari egin dituzte Euskal Herrian barrena. LGBTI komunitateak ohartarazi du haien aurkako delitu gorrotoak goraka doazela, lehenik jarrera edo ahotezkoak, eta ondoren eraso fisikoetaraino.